

2020

# Mendaroko Udalak euskararen erabilera sustatzeko duen planaren balorazioa



## 1. SARRERA

---

Txosten honetan jaso ditugu UEMAk Mendaron 2020an euskararen erabilera sustatzeko egin duen lanaren balorazioa eta 2021era begirako lehentasunak.

2020 urte hasieran, Mendaroko Udaleko alkatearekin, kultur teknikariarekin eta administrariarekin elkartu ginen 2019ko planaren balantzea egiteko eta 2020rako helburuak eta ekintza nagusiak adosteko. Bertan jasotako informazioarekin urteko plangintza egin genuen eta udalarekin kontrastatu genuen.

Behin plana onartuta, bertan jasotako ekintzak aurrera eramateko gidaritza lana egin dugu eta planaren jarraipena egiteko bilerak eta hartu-emana izan dugu urtean zehar.

Zehazki, honakoak izan ziren urte hasieran finkatu genituen lan-lerro nagusiak:

### - UDALAREN EUSKALDUNTZEA:

- Udal barruko kudeaketa plana eta jarraipena egin
- Udal hautetsi eta langileak sentsibilizatu

### - GURASOEN HIZKUNTZA OHITURETAN ERAGITEA

- Eskolarekin, guraso elkartearekin eta udalarekin elkarlanean, euskararen erabileran eragiteko plangintza egin

### - IRAKASKUNTZA:

- Hezkuntza proiektua sistematizatu

### - ARLO SOZIOEKONOMIKOA:

- Merkataritza-ostalaritzan euskarazko eskaintza ugartu
- Turistei udalerrri euskaldunera datozela jakitera eman

### - EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA ETA ETORRI BERRIAK

- Herrian bertan euskara ikasteko aukera eman

- Bizilagun berrientzako harrera sistematizatu

**- SENTSIBILIZAZIO ETA AHALDUNTZEA:**

- Erdararako joera dutenak aktibatu
- Gazteak aktibatu
- Euskaraldian parte hartu

**- UDALERRIAREN ZAINZTA:**

- ELEren gaineko informazioa eman eta ELE egiteko beharra dagoen aztertu

## 2. MEMORIA

---

### 1. ESPARRUA: UDALAREN EUSKALDUNTZEA

**Helburua:** *udal barruko euskararen erabilerak gora egitea*

2019an egindako erabilera plana oinarri hartuta, urteko kudeaketa plana adostu genuen udalarekin batera. 2020an lortu nahi genituen helburuak hautatu eta konpromiso zehatzak hartu genituen.

Kudeaketa planean jasotako ekintzetatik 5 egin dira eta 5 egin gabe geratu dira.

Honakoak dira egin direnak:

- Udalaren ikurra egokitu eta euskaraz jarri
- Udal webgunearen azterketa
- Kontratazio irizpideen berri eman
- Ordenagailuak euskaraz jartzeko bidean zenbait urrats egin
- Hileroko trebakuntza fitxak bidali

Honakoak dira egiteko geratu direnak:

- Herriko hizkuntza paisaia: Euskotreneko eta frontoiko paneletako data euskaraz jarri
- Hornitzaileen lanketa
- Nominak eta kontratuak euskaraz jarri
- Euskaraldia udalean tailerra eman
- Udalaren webgunea beti euskaraz irekitzea

**Helburua:** *Udaleko langile eta hautetsiak ahalduntzea.*

Langileak zein hautetsiak ahalduntzeko gogoeta saioak emateko izan ginen udalean. Saio horien

helburua da hizkuntza irizpideen zergatia eta beharra ulertzea. Hizkuntzari lotuta udalean zein herrian gertatu ahal diren hainbat kasu erreal oinarri hartuta, horietan zer-nola jokatuko luketen hausnartzea, eta UEMAko herria izanik, kasu horietan erabili ahal diren argudioak eta hizkuntza irizpide eredugarrien berri jasotzea.

Euskaraldiaren gaineko formazio saioa ere eskaini diogu udalari, ariguneen berri eman eta ahozko komunikazioan euskaraz aritzearen garrantzia azpimarratzeko, eta Euskaraldian parte hartzera gonbidatzeko, udal langileen eredugarritasuna balioan jarrita. Bizi dugun egoerak, ordea, horrelako saioak egitea ere zaildu egin du eta ez egitea erabaki zuen udalak.

## 2. ESPARRUA: FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

**Helburua:** *gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea*

Guraso eta seme-alaben arteko transmisioaren garrantzia ikusarazteko, ume jaio berrien gurasoei bidaltzeko, udalari hainbat gutun eredu jarri dizkiogu eskuragarri, eta autorako (Kontuz, haurrak!) pegatinak ere bideratu ditugu behar izan diren kasuetan. Horrekin batera, abizenak euskalduntzeko gomendioa egin diegu gurasoei, horretarako garai egokian daudela baliatuta.

Urte hasieran, guraso elkartearekin eta ikastetxearekin bilera egin dugu euskararen erabileraren inguruan dauden kezak partekatzeko eta aurrera begira egin daitezkeenak zehazteko. Bilerekin jarraitu eta urteko egitasmo orokor bat egitea zen asmoa, baina egoerak dena eten zuen.

2020 hasieran egindako bilera hartan, hainbat gai edo egitasmo interesgarri jarri genituen mahai gainean han elkartutakook: aisialdiko entrenatzaileak euskaldunak izatea, haur eta gurasoen tailerra beharbada egin zitekeela, HEDATU hezkuntza proiektuarekin jarraitzeak zuen garrantzia eta LH6ko Bagoaz tailerra, herrian (guraso edo koadrilen artean) EUSLE egitasmoa martxan jartzea...

Hortaz, 2021ean berriz elkartu beharko gara hasitakoa zehaztu eta elkarrekin pausoak ematen hasteko.

### 3. ESPARRUA: EUSKALDUNTZE-ALFABETATZEA ETA ETORRI BERRIAK

**Helburua:** *Herritarrak euskara ikastera animatzea.*

Herrian bertan taldea sortzeko helburuz, euskalduntze-alfabetatze kanpaina egiteko baliabideak eskaini ditugu eta baina azken urteetan udala arduratzen denez gai honetaz, baliabideak eskaintzera mugatu gara. Horrez gain, beka sistema arautzeko aholkularitza eskaini dugu hala nahi izan den kasuetan. Ahaleginak ahalegin, aurten ere ez da talderik sortu, azken urteotan bezalaxe. Hortaz, 2021erako gai hau sakonago landu beharko da, emaitzak ikusi nahi badira.

**Helburua:** *Etorri berriak euskarara erakartzea.*

Euskal Herri kanpotik datozenentzat ohiko diptikoak banatzen jarraitu dugu, eta horiez gain, Euskal Herriko beste herri batzuetatik etorri direnei harrera egiteko eskuorria (euskaraz eta ele biz) prestatu dugu azken horietan ere herriko datu praktikoak gehituta.

Eskuorriak udalean banatu ditugu eta harrerako langileari formazioa eman diogu harrera protokoloaren garrantziaren inguruan eta erroldatzera pertsona bat datorrenean azpimarratu beharrekoen gainean. Formazioa bideo formatura ere eraman dugu, aurrez aurrekoa egin ezin izan den kasuetarako. Mendaro ez da kasua izan, aurrez aurre egin baitugu.

Harrera saioetan eskaintzeko bideoa ere egin dugu. UEMAKo hainbat herritako pertsonak elkarrizketatu ditugu, euskaraz zein beraien jatorrizko hizkuntzan. Bideoaren helburua da etorri berriei ongietorria ematea eta euskararen balioa transmititzea zein euskarara hurbiltzeko gonbidapena egitea. Bideo hori, hasiera batean, barne erabilerarako izango da; hain zuzen ere, harrera edo ongi etorri saioak egiten direnean jartzeko.

Bestalde euskara elkartean gai honi buruzkoak komentatu eta interesa erakutsi dute. Hortaz, bihar edo etzi mahai gainean jar dezakegu harrera edo ongi etorri saioa egitearen aukera, betiere, udala horretarako prest badago.

## 4. ESPARRUA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA

**Helburua:** *denda eta tabernetan euskara erabiltzea sustatzea eta bermatzea*

Udalarekin elkarlanean, udalerriko merkatarien eta ostalarien zerrenda eguneratu dugu apirilean, bertan, establezimenduen inguruko informazioa eta kontakturako helbide eguneratuak jaso ditugu.

Aurtengoan, ez da udako kanpaina egin bere horretan. Dena den, epe horietan beste bi kanpaina orokor egin ditugu. Batetik, COVID-19arekin lotutako neurrien eta oharren inguruko bilketa bat egin, eta merkatarienzat eta ostalarienzat kartel ereduak prestatu ditugu. Horiek webgunean jarri ditugu, eta gutun bat bidali dugu (2.000 biztanletik behera) establezimendu guztietara. Gutun horretan, ohiko merkataritza baliabideak gogorarazi dizkiegu eta izurritearen eraginez sortu diren berrien inguruko informazioa eman diegu.

Bestalde, *Bertatik Bertara* kanpaina egitea ere proposatu dugu. Aurreikusi gabe bazegoen ere, COVID-19ak eragindako osasun larrialdiaren ondorioz, uda honetan aldaketa handia izan du batetik bestera bidaiatzeko eta atsedean egunak antolatzeko moduak eta testuinguru horren baitan egin da kanpaina. Ostalari-merkatarienzako mahai gainekoak banatu ditugu, gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatuz, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz gozatzera animatuz.

Mendarok ez du parte hartu *Bertatik bertara* kanpainan.

Abenduan, ohi bezala, kanpaina egin dugu udalerrri euskaldunetako ostalarien eta merkatarien artean, gutunak bidaliz, beraien zerbitzuak herriaren erakusleihen diren heinean euskara ezinbestekoa dela nabarmenduz eta horretarako hainbat argudio eta azalpen emanaz, hizkuntza paisaia euskaratzeko laguntza eskaintzearekin batera. Berrikuntza moduan, [uema.eus/kartelak](http://uema.eus/kartelak) gunea sortu dugu, merkatariak eta ostalariak errazago izan dezaten eskaerak egitea eta nahi dituzten kartelak eskatzea.

**Helburua:** *Finantza erakundeetan eragitea zerbitzua euskaraz eskaini dezaten.*

Kutxabank eta Laboral Kutxarekin hitzarmena sinatu zenean adostu genuen moduan, aurten ere bi banketxeotan euskararen erabileraren azterketa egin dugu. Bestetik, UEMako udalerrri batzuetako egoitzekin lagin bat atera dugu, finantza erakunde horiekin kontrastea egiteko. Mendaro ez da egon behaketa egiteko aukeratutako herrien artean. Hala ere, interesa izanez gero, izan liteke datorren urtean Mendaroko banketxearen egoera ere aztertzea.

Behin aukeratutako herri guztietako datu guztiak txostena osatuta, bi banketxeotako euskara teknikariekin bilera egin dugu jarraipena egiteko, datuak partekatu, hobetu beharrekoak adostu eta normalizazio ekintzak finkatzeko.

**Helburua:** *Turismoan euskara balioan jartzeta eta bisitariei mezua helaraztea*

Urola Kostan aurreikusita zegoen *Ongi Etorri Euskararen Herrira* kanpainara begirako lan guztiak egin badira ere, pandemiaren etorrerak Aste Santutik aurrera abiatzekoa zen kanpaina bertan behera uztea ekarri du. Kanpaina horren ondoren asmoa zen bertako esperientzia abiapuntu hartuta, gainerako udalerrietara zabaltzen joatea.

Hori horrela izanda ere, udara begira, aurrez esan bezala, aurreikusi gabeko *Bertatik Bertara* kanpaina egin dugu (interesa erakutsi duten herrietan), arnagune zein udalerrri euskaldunak balioan jartzeko. *Bertatik Bertara* kanpainarekin, herritarrei eta bisitariei erakutsi nahi izan diegu udalerrri euskaldunak zer-nolako altxorrek diren, bertatik bertara zenbat goza daitekeen, bertako produktuekin, bertako kulturarekin eta bertako ekonomian oinarritutako garapenari eskutik helduta. Beti ere udalerrri euskaldunen nortasuna egokien islatzen duena euskara dela ahaztu gabe.

“Gure bazterrak ezagutzera eta maitatzera gonbidatzen zaitugu, eta horrekin batera, baita horren bertakoa den eta horren bizirik dagoen hizkuntzaz goatzera ere” nabarmendu zen denda, jatetxe, ostatu eta zerbitzu sektorerako prestatutako karteletarako eta mahai-gainekoetarako prestatutako testuan. Zehazki, horiek izan dira lehen hilabete hauetan kanpainaren erakusleiho nabarmenenak.



Kanpainaren atarian, kanpainaren nondik norakoen, asmoen eta helburuen berri emateko aurkezpen eta saioak antolatu ditugu. Hala ere, Mendarok kanpainan parte hartu ez duenez, bertako merkatari eta ostalariak ez dute saioetan parte hartzeko aukerarik izan.

Izurritearen testuinguruan eta udaren atarian, ostalari eta dendarien lehentasunak beste batzuk zirela kontutan hartuta, merkatari-ostalariak ematea aurreikusita zegoen formazio saioa bideo-azalpen modura prestatu dugu, kanpainaren nondik norakoak eta helburuak azalduz.

## 5. ESPARRUA: AISIA, KIROLA ETA KULTURA

**Helburua:** *Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea*

Etxealdi garaian, etxeko egonaldia arintzeko, UEMAko kide diren udalekin elkarlanean, euskarazko doako hainbat baliabide bildu ditugu, haurrentzat zein helduentzat: jolasak eta eskulanak, filmak, marrazki bizidunak, telesailak, abestiak, ipuinak, dokumentalak, bideojokoak, errezetak...

## 6. ESPARRUA: IRAKASKUNTZA

**Helburua:** *Hezkuntza proiektua sistematizatzea*

UEMAk hezkuntzako maila guztietan eragiteko asmoz HEDATU hezkuntza proiektu integrala du. HHTik DBHrainoko unitate didaktikoz eta tailer osagarriak osatuta dagoena.

2019an unitate didaktiko guztiak moldatu, eraberritu eta osatu genituen. Horretarako, material gehigarri gisa, PPT gehiago eta, batez ere, bideoak sartu genituen. Hamabi pertsona erreferente elkarrizketatu genituen, euskararekin oso leku eta egoera ezberdinetan harremantzen diren hamabi pertsona, eta, erantzun dituzten galderen arabera, unitate batean edo bestean txertatu ditugu beraien erantzunak. HEDATU hezkuntza proiektuarekin salto kualitatibo garrantzitsu bat eman zen, webgune bat sortuta. "[uema.eus/hezkuntza](http://uema.eus/hezkuntza)" webgunean zintzilikatu genituen

HHtik hasi eta DBHra bitarteko unitate didaktiko guztiak; horrela, herriko ikastetxeentzat askoz ere eskuragarriago jarri genuen proiektua bera. Irakasleentzat baliagarria izango den material osagarria ere txertatu genuen bertan (proiektuaren marko teorikoa: hizkuntza ekologia eta arnaguneak).

Behin unitate didaktikoei eta webguneari forma emanda, herriko ikastetxean izan ginen 2019-2020 ikasturtean HH eta LH mailetakako irakasleei eta zuezendari eta ikasketaburuari hezkuntza proiektua aurkezten. 2020-2021 ikasturte hasieran ere egin diegu bertaratzeko proposamena, baina ez dute beharrik ikusi, irakasle berri bakarra etorri baita. Hala ere, badaezpada, azalpenekin osatutako bideoa eta dokumentua bidali dizkiegu.

Maiatzean HEDATUren inguruko galdetegia bidali zaio ikastetxeari eta aipatu dute COVID-19a dela-eta ez dutela aukerarik izan nahi bezala unitateak lantzeko.

Unitate didaktikoez gain, *Bagoaz* tailerra maiatzean ematea aurreikusita bazegoen ere, ezin izan dugu eman etxealdiaren eraginez.

Hezkuntza proiektuaren osagarri gisa, hezkuntza ez formalean eragiteko *Salto* gazte topaketa ibiltariak egiteko prestakuntza lan guztiak egin badira ere, azkenean ekainaren 26tik 30era (Zumaiatik Lekeitiora) egitea aurreikusita zegoen topaketa ibiltaria bertan behera geratu da. Horren alternatiba bezala, neguan Lasturren egonaldia egitea ikusi zen abenduko oporretan. Baina hori ere egiteko modurik ez dugu izan, eta, beraz, hurrengo urtera itxoin beharko dugu.

Herriko gazte bakar batek ere ez du izenik eman Saltorako eta hurrengorako gaia sakonago landu beharra ikusten dugu. Gazteen aktibaziorako gakoa izan daiteke eta eurengan eragin beharra dagoenez, 2021ean tailerren bat edo beste egitea interesgarria izan liteke (gaztelekuaren bidez, adibidez).

## 7. ESPARRUA: BESTE ADMINISTRAZIOAK

**Helburua:** *Osasungintzako zerbitzua euskaraz jasotzeko nahia adierazten dutenen kopuruak*

## *gora egitea*

Osasungintza arloan 2020rako aurreikusita zegoen osasun zentroetako lehen arretako langileen hizkuntza perfilen gaineko diagnostikoa egitea. Informazioa lortzeko saiakerak egin baditugu ere, eskaerak parlamentura bideratuta, pandemiaren testuinguruaren eraginez, datuok ezin izan ditugu lortu. Hortaz, ekintza hau 2021era atzeratu behar izan dugu.

Bestalde, aipatu behar da Mendarotik ez dugula jaso osasun arloari lotutako kexa edo intzidentziarik.

## **8. ESPARRUA: SENTSIBILIZAZIOA ETA AHALDUNTZEA**

### **Helburua:** *Erdararako joera dutenak aktibatu*

2020a ez da urte erraza izan oro har aktibazioari begira. Pandemia egoerak erabat baldintzatu du herriko dinamika, eta hortaz, baita euskalgintzaren dinamika ere.

2020an ez dugu herritarrentzako tailerrik eman, eta urte hasieran Euskaraldirako aurreikuspenak egin eta Eusle egitasmoa martxan jartzea helburu hartu bagenuen ere, izurritearen eraginez bigarren hori ezin izan dugu egin.

### **Helburua:** *Euskaraldian parte hartu*

*Euskaraldia* martxan jartzeko laguntza eskaini dugu herrian eta beharrezkoa izan denean aholkularitza eskaini dugu. Topaguneak prestatutako ahobizi-belarriprest saioak moldatu ditugu udalerrri euskaldunetako begirada eskainita eta udalerrian saioa emateko eskaintza egin dugu. Hala ere, eskaintza mahai gainean egon den arren, egoera zail honetan tailerra ematea ez da hain erraz ikusi eta udalak ez egitea erabaki du.

Apirilean *Etxealditik Euskaraldira* Topaguneak proposatutako dinamikarekin bat egin dugu eta

ekimenean parte hartzeko gonbidapena egin dugu, Iraitzek argitaratutako artikulua bitartez.

**Helburua:** *gazteak aktibatzea*

Gazteengan eragitea estrategikotzat jo bada ere, aurreikusita zegoena baino pauso gutxiago eman ditugu. Batez ere, 12 urteko gaztetxoengan jarri dugu fokoa. Mendaroko gazteak DBH egitera Elgoibarrera joaten dira, udalerrri ez euskaldun batera, eta aldaketa horrek herriko gazteen hizkuntza ohituretan eragina duela somatzen dute herrian. Hori dela-eta, garrantzitsutzat jo genuen LH6ko ikasleekin zuzenean egotea; batetik, datorren ikasturtean hizkuntza ohituretan gertatuko diren aldaketei buruz hausnartzeko, eta, bestetik, inguru erdaldunago horretan joka dezaketen paper garrantzitsuaz ohartzeko. Tailerra maiatzean egitea aurreikusi genuen, baina egoerak hala behartuta, ezin izan genuen egin.

Aipatutakoak baino nagusiagoengan ere jarri nahi izan dugu fokoa, baina haiekin ere ezin izan dugu lanketarik egin, egoerak ez baitu horretarako tarterik utzi.

**Helburua:** *errenta aitortpena euskaraz egiten dutenen kopuruak gora egitea*

Aurrez aurreko hitzorduak bertan behera geratu baldin badira ere alarma egoeraren eta osasun larrialdiaren ondorioz, errenta euskaraz egiteko urteroko kanpainarekin aurrera egin dute udalek eta beste zenbait erakunde publikok, herritarrek administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz izan daitezen bultzatu nahian.

Ohi bezala, kanpainarako prestatutako material grafikoa, udalen, erakunde publikoen eta euskara talde edo elkarten eskura jarri dugu. Tartean daude errenta aitortpena egin daitekeen lekuetan jartzeko euskarriak ere, udalen webguneetarako gif animatuekin batera. Udalari bidali diogu azken urteetan errenta aitortpena euskaraz egin duten pertsonen kopuruak izan duen bilakaera. Komunikatiboki, tokiko hedabideekin landu dugu gaia azken urteotan euskaraz egiten diren errenta aitortpenen datuekin lagunduta.

## 9. UDALERRIAREN ZAINITZA

**Helburua:** *EL Eren gaineko informazioa eman eta ELE egiteko beharra dagoen aztertu*

EL Eren dekretuaren eta jarraibideen gaineko bi saioko formazioak eskaini ditugu HPSrekin batera. Lehenengo saioa HPSk eman du eta bigarrena UEMAk. Udaleko teknikari eta ordezkariak formazioaren berri eman diegu. Formazio saioetan, ordea, Mendaroko Udaleko inork ez du parte hartu.

Herrian epe motzean zein proiektu eta plan landu nahi diren galdetu dugu, eta momentuz ez dagoela ezer berezirik pentsatuta esan digu udal ordezkariak.

## 10. DIRULAGUNTZAK

**Helburua:** *euskara sustatzeko ekintzak diruz lagunduak izan daitezzen lortzea*

Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero moduan dirulaguntza deialdia argitaratu du, eta eskaera eta zuriketa tramiteak egiten lagundu dugu (behar den informazioa bidali eta laguntza eskainita).

Aurten, Mendaroko Udalak Euskara Sustatzeko Ekintza Plan (ESEP) berria egin behar izan du, eta horretarako, uneoro izan du UEMaren laguntza. UEMako teknikaria arduratu da nola egin esateaz eta jarraibide guztiak zehaztasunez emateaz.

## 11. BESTELAKOAK

Komunikazioari lotuta, urtero moduan *Berripapera* argitaratu dugu. Ekainean formatu digitalean zabaldu genuen eta abendukoa paperean.

Barne buletinak bidali dizkiegu hilero hautetsi, euskara teknikari eta hala eskatu duten langileei.

UEMAk urtero bi Batzar Nagusi egiten baditu ere, aurtengo egoera bereziaren ondorioz bakarria egin ahal izan da abenduan (eta bera, online). Batzar Nagusian Mendaroko bi ordezkariak parte hartu dute.

### 3. BALORAZIOA

---

Aurten, aurreikusitako arlo asko lantzeko aukerarik izan ez badugu ere, beste kontu batzuekin aurrera egiten jakin dugu (webgunearen azterketa, udalaren irudia, harrera protokoloa, transmisioa, ESEP berria egitea, Euskaraldia...).

Esan behar da, Euskaraldia aurrera ateratzeko orduan UEMA akuilari lanak egiten aritu dela uneoro (bai izena ematean, baliabideak eskaintzean...), baina udaleko kultur arloak, eta batez ere, herriko euskara taldeak egindako ahalegina txalogarriak izan dira.

Urteko erreposoa egiterakoan, ordea, urte hasieran elkartutako hezkuntza (edo hizkuntza normalkuntza) mahaian jarriko genuke batez ere arreta. Ondo koordinatuz gero, oso bilgune sendoa izan daitekeenaren uste osoa daukagu, eta UEMAtik benetako apustua egin nahiko genuke hura aurrera ateratzeko bidean. Udala, ikastetxea, guraso elkarteak eta euskalgintza norabide berean joatea ezinbestekoa iruditzen zaigu. Izan liteke puntu batzuetan desadostasunak egotea, baina gutxienezko puntu batzuekin aurrera egiten jakin behar dugu. Horretan jarri nahiko genituzke indarrak, bakoitzak bere alorretik eta inguruan ekinda/eraginda asko aurreratzea baitezakegu. UEMAn teknikeria euskara taldeko ordezkari batekin bideorria aurreratzen joateko geratu zen, baina trabatuta geratu zen kontua izurritearen eraginez. Aurrera begirako erronka, egoera baretzen denean berriz horri heldu eta aurrera egitea izango da. Aurretiaz landu beharreko kontuak egongo dira (uneoro udalarekin kontrastatu beharrekoak); eta gero, bilerara gauzak argi eramatea gakoa izango da, bestela, asko aldrebestu eta luzatu baitaiteke kontua. 2021erako bi arlo aukeratzen baditugu bi, baina bi horiei ahal dugun zuku guztia ateratzea izango da asmoa; herrian, hizkuntzari dagokionez, proiektu edo egitasmo eraginkorrak (eta ilusioa piztekoak) abiatzea. Betiere, lehentasunetatik eta lorgarritasunetik abiatuta. Horrelakoetan, helburuak ongi finkatu ezean, erretzeko arriskua dago eta hori da lortu nahiko genukeen azkena.

Euskara taldea bizirik mantentzea eta indartzeak pisua izan beharko luke, gero, Euskaraldian ikusi den bezala, motore papera beraiek jokatuko dute kasu askotan eta. Udalak baliabideak eskainiko ditu eta aurrera egiteko hainbat erabaki hartuko ditu, baina hainbat gauza egiteko orduan euskara taldea herritarrengana errazago hurbilduko da instituzioa baino. Hori beti gertatzen da eta argi izan behar dugula uste dut. Eta nola ez, aukera hori aprobetxatu behar da,

ez gaude aukerak galtzeko eta. Eredu izateaz gain, herritarren kontzientziak piztea da gure lana, gero haiek ere inguruan eragin dezaten, eta Mendaro berreuskaldundu dezagun.

Eta bukatzeko, gazteen aktibazioan (hezkuntzatik, aisialditik eta gaztelekutik helduta) eta euskalduntze-alfabetatzean ezinbestean eragin beharra ikusten dugu. Bigarren horri helduta, azken urteetan ez da euskalduntze-alfabetatzeko talderik sortu herrian eta gai horri beste buelta bat eman beharko geniokela uste dugu. Mendarok bere nortasuna/izaera mantentzea bada gure nahia (hau da, herri euskalduna izaten jarraitzea nahi badugu), herri osoa berreuskaldundu beharko dugu urratsez urrats. Ezin diegu aukerei ihes egiten utzi; euskaraz ikasteko gogoz/ilusioz datozen herritarrei ezin diegu esan ez dutela horretarako aukerarik, edota horretarako datorren urtera arte itxaron behar dutela. Hori eginez gero, ikasteko gogo hori itzaltzeko aukera asko izango lirateke, eta beharbada, egunak igaro ahala, Mendaron bizitzeko euskara ez dela hain baliagarria pentsatzera ere iritsi daitezke.

## 4. 2021erako LEHENTASUNAK

---

2021erako lehentasunak izango dira, udalaren euskalduntzean eragiten jarraitzea:

- Herriko hizkuntza paisaia (bide seinaleak, panelak...) euskalduntzea
- Kontratazio irizpideen jarraipena egitea
- Ordenagailuak euskaraz jartzeko bidea jarraitzea (urratsez urrats)
- Hautetsi eta langileentzako gogoeta tailerra ematea
- Idazkari berria euskaraz lan egiteko (ahoz zein idatziz) gai izatea.

Udalerriaren euskalduntzeari begira, honako eremuetan eragitea:

- Euskalduntze-alfabetatze taldea sortzea, herrian bertan
- Harrera protokoloa sakontzea

Herritarren ahalduntze eta sentsibilizazioari dagokionez:

- Gazteen hizkuntza ohituretan eragitea
- Gurasoen hizkuntza ohituretan eragitea
- Hezkuntza proiektuari jarraipena ematea, gaztetxoengan eragiteko

Udalerriaren zaintzaren alorrean:

- ELE egin behar den aztertzea, eta egin beharra badago, gaiari heldu eta eman beharreko urratsak ematea.